BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

3492

EBAZPENA, 2019ko ekainaren 25ekoa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, zeinaren bidez esleitzen baitira dirulaguntzak euskal unibertsitate- sistemako ikertaldeen jarduerak bultzatzeko (Arte eta Giza Zientziak arloa).

Hezkuntza sailburuaren 2018ko uztailaren 24ko Aginduaren bidez (uztailaren 31ko EHAA. 146. zk.) iragarri ziren euskal unibertsitate-sistemako ikertaldeen jarduerak bultzatzeko dirulaguntzak.

Deialdi-aginduaren 19. artikulua betez, Hautaketa Batzordeak, eskabideen ebaluazioaren emaitzak jaso eta gero, deialdiaren oinarriak behar bezala aplikatu direla berrikusi du, baliabideak esleitu ditu, eta ebazpen-proposamena egin du; ebazpen- proposamen horretan zehaztuko dira A motakoak edo B motakoak direla egiaztatzen duten taldeak eta bakoitzari zenbateko dirulaguntza dagokion, eta, hala badagokio, eskabidea ukatu zaien taldeak eta ukatzeko arrazoia.

Hautaketa Batzordeak, gainera, talde bakoitzak ezarritako helburuetan oinarrituz, kalitate-adierazleak eta emaitzen ebaluazioa ezarri ditu laguntza egikaritzeko bakoitzari dagokion epeetan, eta ekoizpen zientifikoari, prestakuntza-gaitasunari, langileak erakartzeari eta funtsak atzemateari buruzko adierazle andana bat zehaztu du.

Aginduaren 15. artikuluaren arabera, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak, Hautaketa Batzordeak proposatuta, laguntzak ebazpen bidez emango ditu, deialdian agertzen diren lerro bakoitzeko ebazpen bat eginez, bost izanda guztira. Ebazpen horrek hauexek zehaztuko ditu erakunde onuradunei atxikitako ikertalde bakoitzarentzat: talde eskatzailea zein den, ebaluazioaren emaitza (A edo B motako talde gisa aitortzea edo, hala badagokio, ukatzea eta ukatzeko arrazoia), guztira esleitutako zenbatekoa eta kontzeptuen eta urtekoen araberako xehetasuna, eta kalitate-adierazleak eta emaitzen ebaluazioa.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntzako sailburuaren 2018ko uztailaren 24ko Aginduaren babesean (uztailaren 31ko EHAA, 146. zk.) euskal unibertsitate-sistemako ikertaldeen jardueretarako laguntza hauek ematea Arte eta Giza Zientziak arloan:

I. eranskina. Egiaztatutako taldeak.

II. eranskina. Esleitutako zenbatekoa guztira, kontzeptuen araberako xehetasuna eta laguntzaren denborazko banakapena.

III. eranskina. Ukatutako eskabideak.

IV. eranskina. Kalitate-adierazleak eta emaitzen ebaluazioa.

Bigarrena.– I. eranskinean egiaztatutako taldeek, II. eranskinean agertzen ez direnak, ez dute laguntzarik jaso, aurrekontu-kreditua amaitzeagatik.

Hirugarrena.– Eredu normalizatu baten bidez onartuko da laguntza, deialdi-agindu honen 17. artikuluan ezarri bezala.

Laugarrena.– Agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradun diren erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, bai eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan adierazitakoak ere, eta zehazki baldintza hauek:

Bosgarrena.– Jarraipena eta kontrola. Urtero, segidako txosten hauek aurkeztuko dituzte erakunde onuradunek, deialdi-agindu honen 19. artikuluan ezarri bezala: laguntza egikaritzeko jarraipen ekonomikoko txostena eta ekoizpen zientifikoaren jarraipen-txostena.

Seigarrena.– Agindu honen 17.1 artikuluan zehaztu onarpen-prozedura betetakoan, honela ordainduko dira laguntzak:

– Lehen urteko ordainketa, bi alditan egingo da: lehena, aurrerapen gisa, urte horretarako emandako zenbatekoaren % 50. Bigarrena, gainerako % 50a, hurrengo urtean, behin 19. artikuluko 1. atalean zehaztutako txosten ekonomikoak eta zientifikoak aurkeztu izana egiaztatutakoan. Bigarren ordainketa osorik ordainduko da, betiere, erakunde onuradunak egiaztatu ostean urte horretarako emandako zenbatekoaren % 40 gutxienez egikaritu dela. Ez bada hala, justifikatutako zenbatekoaren ordainketa egingo da; ondoren, esleitutako kantitatea aldatuko da eta dagozkion kantitate aurreratuak itzuliko dira.

– Bigarren urtean berdin jardungo da; bigarren ordainketa osorik ordaintzeko, beharrezkoa izango da lehen bi urteetarako esleitutako laguntzaren % 70 egikarituta izatea, gutxienez. Ez bada hala, justifikatutako zenbatekoaren ordainketa egingo da; ondoren, esleitutako kantitatea aldatuko da eta dagozkion kantitate aurreratuak itzuliko dira.

Lehen urteko zenbatekoaren % 40, gutxienez, egikaritu ez duten taldeek, bigarren ordainketa hori osorik jasoko dute, betiere, egiaztatzen badute bigarren urtean jasotako zenbatekoaren % 70 edo gehiago egikaritu dutela. Ez bada hala, justifikatutako zenbatekoaren ordainketa egingo da; ondoren, esleitutako kantitatea aldatuko da eta dagozkion kantitate aurreratuak itzuliko dira.

– Hirugarren urtean, lehen ordainketa bat egingo da, aurrerapen gisa, urte horretarako emandako zenbatekoaren % 50; bigarren ordainketa, behin 19. artikuluko 1. eta 2. ataletan zehaztutako txosten ekonomikoak eta zientifikoak aurkeztu izana egiaztatutakoan egingo da, eta lehen hirurteko (2019-2021) likidazioaren emaitzei egokituta egongo da.

2.– Dirulaguntzaren zenbatekoa abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako berme-erregimenaren arabera bermatuko da; dekretu horren bidez arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kargura emango diren dirulaguntzen berme eta itzulketei buruzko erregimen orokorra, eta dirulaguntzen kudeaketan parte hartuko duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, horien erregimena eta obligazioak ere aipatzen dira.

Zazpigarrena.– Baldin eta deialdi honetan zehaztutako baldintzaren bat betetzen ez badute onuradunek, ezin izango dute laguntza eskuratu, eta, eskuratu badute ere, jaso dutena itzuli beharko dute, legezko interes eta guzti, kopurua ordaindu zitzaienetik aurrera hasita.

Zortzigarrena.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 25a.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea,
ADOLFO MORAIS EZQUERRO.

I. ERANSKINA

EGIAZTATUTAKO TALDEAK. ARTE ETA GIZA ZIENTZIAK

Eskaeraren kodea	Guztira (max. 100 p)	Oinarrizko irizpideak (max. 50 p)	Finantziazioa transferentzia (max. 20 p)	Lan-plana (max. 23 p)	Bestelako irizpideak (max. 7 p)	Taldea
IT1169-19	94.5	50.0	18.0	19.5	7.0	A
IT1170-19	60.0	30.0	13.0	14.0	3.0	B
IT1193-19	85.0	43.0	17.5	18.5	6.0	A
IT1205-19	75.0	42.5	14.0	13.5	5.0	A
IT1208-19	67.0	30.0	15.0	17.0	5.0	B
IT1209-19	65.0	37.0	11.0	14.5	2.5	B
IT1223-19	91.45	46.05	20.0	19.4	6.0	A
IT1227-19	75.0	41.2	15.0	16.5	2.3	A
IT1228-19	90.0	47.0	20.0	18.0	5.0	A
IT1241-19	80.0	41.0	16.0	17.0	6.0	A
IT1243-19	76.0	39.0	18.0	14.0	5.0	A
IT1263-19	95.0	50.0	20.0	20.0	5.0	A
IT1278-19	84.0	41.0	18.0	19.5	5.5	A
IT1312-19	79.5	40.0	18.0	16.0	5.5	A
IT1344-19	91.0	46.5	19.0	19.5	6.0	A
IT1356-19	59.5	32.0	11.0	13.0	3.5	B
IT1396-19	80.0	42.0	17.0	15.0	6.0	A
IT1397-19	65.5	35.5	14.0	10.5	5.5	B

II. ERANSKINA

ESLEITUTAKO ZENBATEKOA GUZTIRA, KONTZEPTU ETA URTEETAN BANATUTA. ARTE ETA GIZA ZIENTZIAK

Eskaeraren kodea	Kontzeptua	2019	2020	2021	Guztira
IT1169-19	Ikertzaileak eta ikerket. laguntz langileak	39.117	39.521	51.362	130.000
	Tresneria txikia, zientifikoa/bibliografikoa	-	13.680	1.320	15.000
	Beste gastu batzuk	17.242	17.420	22.638	57.300
	Orotara	56.359	70.621	75.320	202.300
IT1193-19	Ikertzaileak eta ikerket. laguntz langileak	34.720	35.078	30.202	100.000
	Tresneria txikia, zientifikoa/bibliografikoa	6.770	6.840	6.390	20.000
	Beste gastu batzuk	24.554	24.807	32.239	81.600
	Orotara	66.044	66.725	68.831	201.600
IT1223-19	Ikertzaileak eta ikerket. laguntz langileak	39.117	39.521	51.362	130.000
	Tresneria txikia, zientifikoa/bibliografikoa	12.036	12.160	15.804	40.000
	Beste gastu batzuk	24.554	24.807	32.239	81.600
	Orotara	75.707	76.488	99.405	251.600
IT1228-19	Ikertzaileak eta ikerket. laguntz langileak	32.666	33.003	46.335	112.004
	Tresneria txikia, zientifikoa/bibliografikoa	1.750	1.768	2.298	5.816
	Beste gastu batzuk	15.866	16.030	20.832	52.728
	Orotara	50.282	50.801	69.465	170.548
IT1263-19	Ikertzaileak eta ikerket. laguntz langileak	39.117	39.521	51.362	130.000
	Tresneria txikia, zientifikoa/bibliografikoa	4.514	4.560	5.926	15.000
	Beste gastu batzuk	23.019	23.257	30.224	76.500
	Orotara	66.650	67.338	87.512	221.500
IT1278-19	Ikertzaileak eta ikerket. laguntz langileak	13.994	14.138	18.375	46.507
	Tresneria txikia, zientifikoa/bibliografikoa	-	-	-	-
	Beste gastu batzuk	7.336	12.167	11.351	30.854
	Orotara	21.330	26.305	29.726	77.361
IT1344-19	Ikertzaileak eta ikerket. laguntz langileak	12.608	10.191	13.515	36.314
	Tresneria txikia, zientifikoa/bibliografikoa	2.521	3.821	3.435	9.777
	Beste gastu batzuk	7.288	7.363	9.568	24.219
	Orotara	22.417	21.375	26.518	70.310
IT1396-19	Ikertzaileak eta ikerket. laguntz langileak	3.754	11.379	13.980	29.113
	Tresneria txikia, zientifikoa/bibliografikoa	2.002	1.643	929	4.574
	Beste gastu batzuk	6.084	6.526	8.484	21.094
	Orotara	11.840	19.548	23.393	54.781

Oharra: I. eranskinean egiaztatutako taldeek, II. eranskinean agertzen ez direnak, ez dute laguntzarik jaso, aurrekontu-kreditua amaitzeagatik.

III. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK. ARTE ETA GIZA ZIENTZIAK

A) Lehiaketan onartu ez diren taldeak.

Eskaeraren kodea	Ez-betetzea
IT1321-19	4.4.a) artikulua

IV. ERANSKINA

2019-2021 ALDIRAKO KALITATE-ADIERAZLEAK ETA EMAITZEN EBALUAZIOA, DIRUZ LAGUNDUTAKO IKERTALDE BAKOITZARENA. ARTE ETA GIZA ZIENTZIAK

Eskaeraren kodea	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
IT1169-19	49	4	17	18	61	10	4	2	5	2	500.000
IT1193-19	60	3	12	30	31	15	9	6	7	4	344.152
IT1223-19	113	3	20	60	39	30	6	3	10	3	397.618
IT1228-19	64	1	18	36	65	9	6	4	6	8	326.095
IT1263-19	100	6	40	34	7	20	12	5	1	2	400.000
IT1278-19	50	3	5	4	-	38	6	1	2	2	40.000
IT1344-19	107	2	55	40	5	10	10	4	4	1	119.217
IT1396-19	50	3	14	25	88	8	12	9	8	6	121.076

1 Argitalpenak osotara
2 Liburuak
3 Kapituluak
4 Artikulu indexatuak
5 Idem Q1 % (*)
6 Bestelako argitalpenak
7 Defendatutako tesiak (*)
8 Nazioartako tesiak
9 Doktoretza aurreko kontrat.
10 Doktoretza ondoko kontrat
11 Kanpo finantziaketa (*)

* Oharrak:

Ez bada argitalpenen zenbatekora heltzen, Q1 % adierazlea hobetzeko erabiliko da.

Ez bada defendatutako tesien zenbatekora heltzen, nazioarteko tesien adierazlea hobetzeko erabiliko da.

Kanpo-finantzaketa: IN taldearen kidea den proiektu/kontratuetan lortutako finantzaketa. Deialdi honetako funtsak ez dira barne hartzen. 2019-2021 hirurtekoa.